

Jesus ongo maitatuak eskatzen du lenbiziko OTOITZA EDO ORAZIOA.



Urruti dagoen errian sartzeko ez da asko prestatzea batek bide-gauzak eta arako bide zuzen garbia arkitzea: ibilli bear du: bear du dabillenean galdetu utsegiñ ditekean nonbait; aitzen zayonean daramana, eskatu bear du, gosea iltzeko ta egarria kentzeko bear duena; lo atsedetea, ta otordua egiñ ondoan, artu bear du berriz bere bidea, ta bear du ibilli bidetik atera-gabe, billatzen duen erriraño. Jesusen Biotzean sartu nai duenak, edo nai duenak biotz guziarekiñ maite gaituen Jesus gogotik eta ongi maitatu, joan bear du egiñaz, daraman zeruko bidean, zenbait gauza; ta lenbizikoa da otoitza, edo maitatze ori bera Jaunari eskatzea.

Nor bagña, aiña egiñ genezake nai dugun guzia: bada bear bezala eskatu ezker, emain liguke Jainkoak ori egiteko bear duguna. Beñ ta askotan eman dituen bere itzez, orretara beartua dago Jesus ona. Baña eman dituen gauzen artean, ez du batere ain gogotik ematen, nola bera maitatzeko bear dugun eskua ta grazia. Eska-bekio bada grazia ta esku au; nai badugu laster ta fite sartu beraren Biotzean narez ta amarez.

Egiñ-du guk asma-al baño geiago, guri maitarazteagatik bere Biotza. Bere eskuan daduka guri ematea orretarako bear duguna; bada nola ukatuko du eskatzen zaionean? Eskatzen ez diogu orretarako bear dena, zeren ezerezean bezala dadukagun Jesus maitatzea. Maitatze au gauza andia dela bageneritza, egiten dugun baño geiago egiñen genake ez galzeagatik. Ez dugu oraindik ezagutu, zenbat balio duen maitatze onek; ez dugu ezagutu, ar-dezakegun doairik andiena Jesus maitatzea dela; ta orregatik ez dugu oraindik ori gogotik eskatu.

Doai andi au irabazteko gauzarik zuzenen ta errazena da otoitza, orazioa edo eskatzea. Eska zazu, dio Jesus onak, eta izaiñ dezu; eska zazu, ukatuko zaitzulako beldurrik gabe: *credite, quia accipietis*; ta siñistu zazu, eskatu ondoan artzen ezpadezu, ez dezula ongi eskatu: *non accipitis, eo quod male pelatis*.

A. SEBASTIAN MENDIBURU-K.

